



PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

Parte-hartzaileek konpromisoa hartzen dute araudi hau eta antolakuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoen ondorioz proban egin beharreko edozein aldaketa onartzeko.

Izena emateak berekin dakar konpromiso hauek irakurri, ulertu eta hartzea:

- Nik ekitaldian parte hartzearen ondoriozko erantzukizun orotatik libre uzten dut antolakuntza (gauza pertsonalak lapurtzea edo galtzea, lesioen arriskua izatea, etab.).
- Baimena ematen diot antolakuntzari nire irudia argitalpen, kartel eta abarretan erabiltzeko, igeriketa-zeharkaldiak sustatzeko; dena den, izena emandako edozein pertsonak bere irudia erabiltzea debekatu ahal izango du, aldez aurretik Erakunde Antolatzaileari idatziz eskatuta:
info@salomecampos.com
- 15/1999 Lege Organikoarekin bat, jakinarazten zaizu zure datu pertsonalak fitxategi batean sartuko direla, eta Erakunde Antolatzailea izango dela fitxategi horren arduradun. Fitxategiaren helburua Salome Campos Igeriketa Zeharkaldiari buruzko datuak kudeatzea da, baita etorkizunean egingo diren edizioen berri zuri ematea ere. Datu horiek ikusi, zuzendu, ezabatu eta horiei aurka egiteko eskubideez baliatzeko, bidali idazki bat lehen aipatutako helbidera, NANaren fotokopia bat erantsita duela.

ANTOLAKUNTZA

Salica, SLk, Fortuna Kirol Elkartearekin eta Bermeoko Udalarekin lankidetzan, antolatzen du Salome Campos Igeriketa Zeharkaldia.

Proban antolakuntzaren araudi honetako arauak beteko dira.

DATA

Proba 2013ko irailaren 7an (larunbata) egingo da, 14:00etatik aurrera.




PATE-HARTZAILEAK

18 urte gorakoak izanik, hala nahi duten pertsona guztiek parte hartu ahal izango dute, baldin eta federatuta badaude, parte hartzeko baldintzak betetzen badituzte, eta araudi honen arabera aldez aurretik izena ematen badute.

IBILBIDEA

5 kilometroko luzera izango du, Bermeoko portuko mailutik Izaro uharteraino joan eta Bermeoko portura itzultzea. Antolakuntzak bere gain hartuko du segurtasuna. Mailutik kanpoko nasara irtengo da, eta Izaro uharterean ondoan dagoen buia bateraino joan beharko da; han buelta eman eta Bermeoko nasako abiapuntura itzuli. (ikus mapa).



OSASUN- ETA MEDIKU-ZERBITZUAK

Igerilariak erantzukizun zibileko aseguru-poliza izango dute, 62/2008 Errege Dekretuko II. Eranskineko 14. artikuluan ezarritakoaren arabera. Errege Dekretu horren bidez, itsas segurtasuna, nabigazioa eta itsasoan giza-bizitza babesteko baldintzen araudia onetsi zen, eta baldintza horiek zerbait ospatzeko egiten diren uretako elkarretaratzei eta uretako kirol-probei aplikatzen zaizkie. Antolakuntza eta bere lankideak ez dira erantzule izango igerilariak zuhurtziagabekeriaz edo zabarkeriaz jokatzegatik edo sasoiaren ez egoteagatik edozein lesio edo ondorio izanez gero.

SARIAK ETA SARI-BANAKETAREN EKITALDIA

Igerilari guztiek opari txiki bat jasoko dute parte hartzeagatik. Sari-banaketa zeharkaldia bukatu eta gutxira egingo da, Bermeoko nasan horretarako prestatutako gunean.

IDENTIFIKAZIOAK EMATEA

Bermeoko nasan horretarako prestatutako gunean egingo da larunbatean bertan, irailaren 7an, 12:00etatik 14:00etara. Oroitzapenezko txano bat eta Kontsignan poltsak identifikatzeko etiketa zenbakitu bat emango dira.

ALDAGELA ETA KONTSIGNA

Horretarako gunea bat prestatuko da nasan. Igerilariak arropa kendu eta beren gauzak beren motxiletan gorde ahal izango dituzte. Igerilari bakoitzari zenbaki bat emango zaio; zenbaki hori bere besoan markatuko da Kontsignan utziko den poltsa/motxila bakoitza identifikatzeko. Zeharkaldiaren ostean motxila Kontsignan jaso ahal izango du, besoan markatutako zenbakia aurkeztuz.



DUTXAK

Hala nahi duten igerilariak Pilotalekuko dutxak erabili ahal izango dituzte (Fraileleku kalean, Portuaren ondoan).

TALDEEN HAUTAPENA

Bermeoko portuko arrapatatik, neskak 14:00etan irtengo dira, eta mutilak 14:15ean. Izena emateko prozesuan igerilariak gutxieneko marka bat egiaztatu beharko dute (ikus FAQen PDFa). Nahitaezkoa izango da taula honetako denbora berberak edo hobeak egiaztatzea:

	2000m	2500m	3000m	3500m	4000m	4500m	5000m
GIZONEZKOAK	33,20	41,40	50,00	58,20	1h06,40	1h15,00	1h23,20
EMAKUMEZKOAK	36,40	45,50	55,00	1h04,10	1h13,20	1h22,30	1h31,40

Antolakuntzak beretzat gordetzen du araudi honetan azaltzen diren baldintzak onartzen ez dituen edozein izen-emateri uko egiteko eskubidea. Zalantzarik izanez gero, edo araudi honetan esplizituki jasota ez dagoen egoerarik gertatuz gero, Antolakuntzak erabakitzen duenari men egingo zaio.

KANPORAKETAK

Lehiaketako zerbitzu medikoak igerilari hauek zeharkalditik kanporatzeko ahalmena izango du:

- Egoera fisiko txar nabarmenean daudenak.
- Ibilbide osoa egiten ez dutenak.
- Identifikazioa (txanoa) ondo ikusteko moduan ez daramatenak, edo berau manipulatu egin dutenak edo publizitatea daramatenak.
- Kirol-legearen kontrako portaera erakusten dutenak edo antolakuntzari behin eta berriz protestaka zuzentzen zaizkionak.
- Araudi honek ezarritakoa betetzen ez dutenak.

BESTELAKOAK

Informazio gehiago nahi izanez gero, edozein zalantza edota eskaera argitzeko, jarri harremanetan Antolakuntzarekin, info@salomecampos.com helbide elektronikoaren bidez.